

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4385

EBAZPENA, 2025eko urriaren 2koa, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearena, zeinaren bidez izendatzen baitira 2025eko ekitaldirako elikagaien eta zuraren balio-kateetan digitalizazio, berrikuntza eta ekintzailetzarako proiektuak zehazteko eta ideiak heltzeko prozesuak babesteko laguntzen Balorazio Batzordeko kideak (Onekin 2025 programa).

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez, 2025eko ekitaldirako, elikagaien eta zuraren balio-kateetan digitalizazio, berrikuntza eta ekintzailetzarako proiektuak zehazteko eta ideiak heltzeko prozesuak babesteko laguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dira (Onekin 2025 programa). Bada, agindu horren 13. oinarriko 3. paragrafoak honako hau ezartzen du: «Proiektuak ebaluatu eta baloratzeko, eta balorazio-irizpide objektiboak aplikatzeko eta haiek haztatzeko, balorazio-batzorde bat sortuko da. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzaren Ikerketa Programen arduraduna izango da Balorazio Batzordeko burua. Zuzendaritza bereko teknikari bat eta Hazi Fundazioko ordezkari bat izango dira batzordekideak, eta lehenengoak idazkari-lanak egingo ditu. Balorazio Batzordearen osaeran, gaitasun, kompetentzia eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, alde batera utzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa izatea».

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua ikusi da, non Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila kentzea eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila sortzea ezartzen baita (Dekretu hori abuztuaren 28ko 165/2025 Dekretuak aldatu zuen).

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Jarraian adierazten diren pertsonak izendatzea Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez deitutako laguntza-eskabi-deak aztertuko eta ebaluatuko dituen Balorazio Batzordeko kide. Agindu horren bidez, 2025eko ekitaldirako, elikagaien eta zuraren balio-kateetan digitalizazio, berrikuntza eta ekintzailetzarako proiektuak zehazteko eta ideiak heltzeko prozesuak babesteko laguntzen deialdia egiten da (Onekin 2025 programa). Batzordeak ebaluazioa zehazten duen txostena emango du, eta azken hori behin-behineko ebazpen-proposamenaren oinarria izango da.

Aurrekoaren arabera, honako hauek osatuko dute Balorazio Batzordea:

Batzordeburua:

M.^a Luisa Fraile Correa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako Ikerketa Programen arduraduna (titularra).

Alfonso Arriola Lacruz, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako Enpresa Programaren arduraduna (ordezkoa).

2025eko urriaren 17a, ostirala

Batzordekideak:

Elisa Torre-Enciso Enciso, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako berrikuntza-teknikaria, idazkari gisa (titularra).

Marta Soláun Aguirrezabal, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria (ordezkoa).

Mentzia Ochoa de Zuazola Zabala, Hazi Fundazioko Ekintzailera, Berrikuntza eta Prestakuntzako zuzendaria (titularra).

Josu Garaialde, Hazi Fundazioaren Ekintzailera eta Prestakuntza Arloko Onekin programaren koordinatzailea (ordezkoa).

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bate-gina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, ebazpen honen bidez organo horren osaera ezartzen da, eta hura argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 2a.

Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordea,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.